



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko azaroaren 17a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsitako irizpena (10. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikuluen b) letra aldatzen duena. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsitako irizpena (12. or.).

—Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (13. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (16. or.).

—Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2009ko azaroaren 11n eta 12an eginiko bileretan onetsia

Foru Lege proiektua, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Administrazio publikoek ez dute inoiz alboratzen prozedura administratiboak erraztu eta hobetzeko borondatea. Haien jarduera eta funtzionamenduaren oinarri diren printzipio berriak direla-eta, beharrezkoa da zerbitzu hobea ematea herritarrei, alegia, zerbitzu azkarra, koordinatua, gardena, eraginkorra, eragimenezkoa eta modernoa. Prozedura administratiboetan teknologia berrien erabilerak ez du bueltarik; kultura aldaketa eskatzen du, prozedura administratiboen berrikuspenetik eta teknika administratibo berriak sortzetik hasita.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea mugarria izan zen egungo garaiekin bat datorren Administrazio malguago eta modernoagoa lortzeko bidean, eta, horrekin batera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren errealitatera moldatutako esparru juridikoa eratu zuen. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeak, berriz, egiazko administrazio elektronikoa pausoz pauso, osotara eta norabide asko kontuan hartuta gauzatzeko testuingurua eratu zuen; administrazio horrek teknologia berrien aldeko apustu garbia egiten du, hartara Administrazioa herritarrengana hurbilduko delakoan eta prozedura administratiboak arindu, malgutu eta, finean, erosoagoak bilakatuko. Helburuetako bat burokrasia murriztea eta administrazio izapideak normalizatzea da.

Testuinguru orokor eta iraunkor hau ez da salbu gelditu krisi ekonomiko latz baten astindutik. Administrazio Publikoa ahalegindu behar da suspertze ekonomikoaren eragile gisa jarduten, herritarrengan konfiantza ernatu eta jarduera pribatua bultzatuko duten tresnak sortuz. Horretarako, lan administratiboan zama arindu, erraztu eta ezabatu ere egin behar du, bereziki jarduera ekonomikoak ezarri, negozio berrietarako ekimenak sustatu eta enpresak sortzea helburu duten prozeduretan.

Nafarroako Gobernuak eta Foru Parlamentuak buru-belarri heldu diote zeregin horri, eta jadanik ezarrita dauden beste neurri batzuekin batera, foru lege honen bidez administrazio-lanak errazteko neurri administratibo multzo bat aurkezten dugu, pertsona fisiko edo juridikoei Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedea dutenak. Era berean, beste xede bat esparru juridiko berri bat eratzea da, izapide eta prozedurak gutxitzen lagunduko duena, bai ekoizpenaren arloko proiektu publikoen sustapenari begira bai negozio eta

enpresa berriak sortu eta ezartzeari begira Nafarroako Foru Komunitatean. Hortaz, foru legearen xedetzat hartzen dira, besteak beste, ezinbestekoak diren administrazio-zamak kentzea, enpresa eta lanbide jarduera bultzatzeko lanetan aritzen diren eragileekin harremanak izateko bide berriak ezartzea, administrazio elektronikoaren eta prozedurak erraztu eta modernizatzearen aldeko apustua berrestea; aipatutako alderdi guztiak aintzat hartu behar dira xedapen orokorrak egiterakoan.

Foru lege honetan jaso diren neurrietako batzuk garapen ekonomikoari laguntzeko dira, beste batzuk jarduera ekonomikoak abian jarri eta betetzeko, eta beste batzuk, azkenik, administrazio-izapidetza errazteko.

Lehenbiziko multzoko neurrietako bat Nafarroako garapen ekonomiko, sozial edo lurraldekoari begira garrantzi berezia duten proiektuak foru intereseko inbertsio deklaratzeko da, horren ondorioz, Nafarroako Administrazio Publiko guztiek lehentasunezko eta presako bultzada eman diezaieten.

Bigarren multzokoak askoz gehiago dira, eta horien arteko bat protokoloak egitea da, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzean eragina izan dezaketen prozeduretako bakoitzean beharrezkoak diren izapideak eta betebeharrak bertan jasotzeko; protokoloa tresna argigarria da, herritarrak eskatzen diren izapideen jakitun izan daitezen erabiliko dena. Administrazio-izapidetzarako bulego bat ere sortuko da, informazio, aholkularitza, izapidetza bateratu eta, beharrezkoa denean, ebazpen zerbitzuak modu zentralizatuan emateko, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzearekin zerikusia duten gai edo prozedura guztietan. Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian ere enpresentzako zerbitzuetarako atari berezi bat jarriko da abian. Foru legeak sistema telematikokoaren alde egiten du, enpresen eta Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde publikoen arteko lehentasunezko komunikazio bidea izan dadin; horrekin batera ezarri da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek informazio betebeharrak horiek berrikusi eta murriztu beharko dituztela.

Eta, azkenik, administrazioa errazteko neurrien artean, xedapen orokorren proiektu edo aurreproiektuetan administrazio-zamei buruzko azterlana egin beharra jasotzen da, xedapen berriek izanen luketen eragina baloratzeko haiek ezarri aurretik, bai eta jarduera ekonomikoak ezarri eta garatzea eragotziko duten oztopo gehiago, beharrik gabekoak, ekarriko ote dituzten argitzeko, zuzentzeko aukera egon dadin. Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuei eskatzen zaie espresuki zeinek bere eskumenekoak dituen prozedurak

azter eta erraz ditzala, horretarako behar diren arau-aldaketak sustatuz. Oro har, erantzukizuneko aitortpena eta aurretzeko komunikazioa izanen dira kasuan kasuko enpresa edo lanbide jarduera epe askoz motzagoan hasteko bide emanen duten tresnak, eta egun Administrazioak egiten duen aurretzeko kontrola ondorengoa izanen da aurrerantzean, betiere ekimenaren sustatzailearen erantzukizunaren bermearekin eta eskatutako dokumentu guztiak aurkeztuta. Halaber, xede horrekin berarekin arautzen dira baldintzapeko lizentziak. Hala lanbide elkargoen nola jarduera mota honen sustapena xedetzat duten erakundeen inplikazioa handiagoa izatea ezinbestekoa dela ulertzen da. Administrazioak laguntza eman behar du proiektuak eta ikus-onesiak modu telematikoa aurkezteko. Erregistroko liburuak bitarte elektronikoa erabiliz eramateko beharra betetzea ere bultzatzen da, betebeharrak hori dagoen prozeduren berrikuspenarekin batera. Era berean, garrantzi handiko neurritzat hartzen da arautzea dokumentuen ikus-onesia eta egokitasunekoak, arauak definitutakoak, aukera emanen baitu enpresa edo lanbide jardueren proiektuetako espedienteetan esku hartzen duten lanbide elkargoak Administrazioarekin elkarlanean aritzeko eta, eskuordetuta edo hitzarmen bidez haien esku utzitako eginkizun publikoak eraginkortasunez betetzeko, kasuan kasuko Administrazio Publikoari eginkizun horien zama kenduta.

Aurreko neurrien osagarri, Ingurumena Babeseko Esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legearen aldaketa batzuk eginen dira, prozedura batzuk arintzeko eta lineako Administrazioaren jarduera bultzatzeko foru lege honetan jasotako neurri batzuekin.

Laburbilduz, neurri multzo honek zenbait maila desberdinetako teknika batzuk biltzen ditu, enpresa edo lanbide jarduerak ezartzeko xedea dutenak, helburuen artean jarduera ekonomiko horiek sustatzea duten eragileak inplikatzu; horrela, aukera egonen da esparru juridiko arinagoa lortzeko, pizgarria izanen dena pertsona fisikoek edo juridikoek Nafarroako Foru Komunitatean negozio eta enpresa berriak ezartzeko proiektuak aurkez ditzaten.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru lege honen xedea da Administrazioa errazteko neurri batzuk arautzea, pertsona fisiko edo juridikoei Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzea errazteko.

1. bis idatz-zati berria. Foru lege hau aplikatuko zaie, besteak beste, Administrazioaren informazio-, aholkularitza-, izapide- eta ebazpen-prozesuei, baldin eta Nafarroako Foru Komunitatean enplegua eta ekonomia sustatzeko eta produkzio eredua dinamizatzeko lagungarri izan daitezkeen enpresa-erazpeneko proiektuei edo jarduerak egokitzeko eta handitzeko proiektuei eragiten badie”

2. Foru lege hau ez da tributuen arloan aplikatuko.

2. artikulua. Helburuak.

Foru lege honen helburuak hauek dira:

a) Bilatzen diren helburuei balio erantsirik ez emateagatik beharrezkoak ez diren administrazio-zamak kentzea.

b) Foru Komunitateko Administrazioarekin eta haren erakunde publikoekin harremanak izateko tresna berriak ezartzea, irmotasun bereziarekin bultzatuz administrazio elektronikoa.

c) Lanbide elkargoek eta entitate publikoek jarduera ekonomikoak arintzen eta abian jartzen parte har dezaten bultzatzea.

d) Kultura administratiboan txertatzea prozedurak errazteak eta modernizatzeak duen garrantzia, eta interes bereziarekin baloratzea alderdi horiek xedapen orokorrak egitean.

3. artikulua. Neurrien sailkapena.

Foru legean jasotako neurriak erdietsi gogo diren helburuen arabera egituratzen dira, honela ezarriz:

a) Garapen ekonomikoa bultzatzeko neurri administratiboak: foru intereseko inbertsioen deklarazioa.

b) Enpresa edo lanbide jarduerak abian jarri eta betetzen laguntzeko neurriak:

b.1) Protokoloak egitea.

b.2) Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa ezartzea.

b.3) Enpresentzako zerbitzuen ataria sortzea.

b.4) Informazioa emateko betebeharra murriztu eta erraztea.

c) Administrazio-izapidetza errazteko neurriak:

c.1) Administrazio-zamak aztertzea.

c.2) Prozedurak berrikustea.

c.3) Erantzukizuneko aitorpena eta administrazioaren aurretiazko komunikazioa arautzea.

c.4) Baldintzapeko lizentziak arautzea.

c.5) Proiektuak eta ikus-onetsiak modu telematikoa aurkeztea.

c.6) Dokumentuen ikus-onetsia eta egokitasuneko ikus-onetsia arautzea.

c.7) Erregistro liburuak eramateko modua erraztea.

II. KAPITULUA

Garapen ekonomikoa bultzatzeko neurri administratiboak

4. artikulua. Foru intereseko inbertsioak.

1. Nafarroako Gobernuak, erabaki bidez, foru intereseko inbertsio deklaratu ahal izanen ditu Nafarroako garapen ekonomiko, sozial edo lurraldekoari begira garrantzi berezia duten proiektuak.

2. Deklarazio hori administrazio-izapidetzaren edozein unetan erabaki ahal izanen da, eta onesten denetik aurrera izanen ditu ondorioak. Erabakian ezarriko dira moduak, baldintzak eta epeak, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da denek ezagut dezaten.

2 bis idatz-zati berria. Proiektu bat foru intereseko inbertsiozat deklaratu duten Nafarroako Gobernuaren erabakiak, onetsi direnetik bi hilabete epean gehienez ere, Nafarroako Parlamentura igorri eta Parlamentuko kasuan kasuko batzordean aurkeztu beharko dira, kalifikazio hori emateko aintzat hartu diren ezaugarriei buruz informatzeko.

3. Nafarroako administrazio publikoek lehentasunezko eta presako bultzada emanen diete foru intereseko inbertsio deklaraturakoei haien izapideetan.

4. Administrazio prozeduretan jarduera ezartze-ko aurreikusi diren eta foru legeetan, foru dekretuetan eta foru aginduetan araututa dauden izapide- etako ohiko epeak erdira murriztuko dira foru intereseko inbertsio deklaraturakoen kasuan, salbu eta eskaera eta errekursoak aurkezteari dagozkionak.

5. Era berean, erdira murriztuko dira hirigintza planeamenduaren izapidetzearen, onspenaren eta exekuzioaren arloan ezarririk dauden epeak, haien xedea foru intereseko inbertsio deklaraturako obrak eta instalazioak direnean.

6. Halaber, erdira murriztuko dira obra eta instalazio horien exekuzio, irekitze edo funtzionamendurako beharrezkoak diren lizentziak emateko epeak.

7. Aurreko ataletan jasotakoak eragina izanen du foru legeetan, foru dekretuetan eta foru agindu-

etan ezarritako epeetan; betiere, epeok ez badute jatorria Estatuko nahiz Europako legeetan, eta eraginik ez badute interesdunek bete beharreko tramiteetan.

III. KAPITULUA

Jarduera ekonomikoak abian jarri eta betetzen laguntzeko neurriak

5. artikulua. Protokoloak egitea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzean eragina duten prozedurak izapidetzeko eskumena dutenek, protokolo batzuk egin beharko dituzte foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, zeinek bere eskumeneko prozeduretako bakoitzean beharrezkoak diren izapide eta betebeharrak bertan jasotzeko. Protokolo horiek lanbide elkargo guztiei eta parte hartzen duten entitate publikoei igorriko zaizkie, eta Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian ere argitaratuko dira. Horrez gain, protokolo horiek etengabe eguneratuko dira.

6. artikulua. Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa.

1. Nafarroako Gobernuak administrazio-izapidetzarako bulego bat sortuko du, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzearekin zerikusia duten gai edo prozedura guztietan informazio, aholkularitza, izapidetza bateratu eta, beharrezkoa denean, ebazpen zerbitzuak modu zentralizatuan emanen dituen unitate administratiboa alegia. Erregelamenduz garatuko dira haren eginkizunak eta atxikipen organikoa.

2. Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa enpresei zerbitzuak emateko eskumena duten gainerako unitate administratiboekin koordinatuta arituko da, eta batera bultzatu beharko dute administrazio elektronikoa, zeinek bere jardun eremuan, eta, zehazki, teknologia berrien erabilera eta izapidetza telematikoa sustatzea, Administrazioaren eta enpresen arteko lehenetsuneko bidea izan dadin. Lanbide edo enpresa proiektuak izapidetzean parte hartzen duten entitate publikoekin ere koordinatuz arituko da.

3. Erregelamenduz zehaztuko da enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoaren zerbitzuen katalogoa, beteko dituen informazio, aholkularitza, izapide eta ebazpen zerbitzuak jasoko dituen. Aipatutako katalogoan beharrezkotzat jotzen diren izapide guztiak sartu ahal izanen dira, tributuen arlokoak barne, arlo hori foru lege honen aplikazio

esparrutik kanpo badago ere, 1. artikulua 2. idatz-zatian xedatu bezala.

4. Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoak erregistroko bulegoaren izaera edukiko du enpresei ematen dizkien zerbitzuei dagozkien prozedura guztietan.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek eskatzen dien laguntza eman beharko diote Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoari, ahal den modurik azkarren eta eraginkorrean.

7. artikulua. Enpresentzako eta profesionalentzako zerbitzuen ataria.

Gehienez ere sei hilabeteko epean, Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa atxikia duen Departamentuak, gainerako departamentu eskudunekin elkarlanean, enpresentzako eta profesionalentzako zerbitzuetarako bere atari berezia jarriko du abian Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian, eta bertako edukiak koordinatuko ditu, eta horien eguneratzea eta mantentze lanak bermatuko.

8. artikulua. Informazioa emateko betebeharrak.

1. Sistema telematikoa erabiliko da, lehenetsunez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen arteko komunikaziorako, arau indardunek dakarten informazio betebeharrak betetze aldera.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko departamentuek enpresei eta haien ordezkari-
ei eskatutako informazio betebeharrak aztertu eta murriztu beharko dituzte.

IV. KAPITULUA

Administrazio-izapidetza errazteko neurriak

9. artikulua. Administrazio-zamen azterketa.

Xedapen orokorren proiektu edo aurreproiektuen memorian edo memorietan administrazio-zamei buruzko azterlan bat eginen da, arau berriaren eragina aztertzeko, enpresa edo lanbide jarduerak ezarri eta garatzeko beharrezkoak ez diren trabak, garapen ekonomikoa oztoka dezaketanak, ekar ez ditzan, eta administrazioa erraztea eta prozedurak bide telematikoa ezartzea bultzatzeko, hain zuzen ere beti bilatu behar baitira helburu horiek. Azterlan horren eduki zehatza lehen-dakaritzako eskumena duen kontseilariaren foru agindu bidez arautuko da; foru agindua foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean emanen da.

10. artikulua. Prozedurak berrikustea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko departamentu bakoitzak, gehienez ere sei hilabeteko epean, bere eskumeneko administrazio prozedurak aztertuko ditu, ahalik eta izapide gehien erraztu eta/edo kentzeko, izapidetu eta ebazteko epeak murrizteko eta enpresek Administrazioarekiko kudeaketetan dituzten kostuak gutxitzeko xedearekin.

Horrekin batera, izapidetze elektronikoaren ezarpena bultzatuko dute, teknikoki posible den neurrian. Horretarako, lanbide elkargoen iritzia kontuan hartuko da, bai eta horiek esku hartzen duten prozedurekin zerikusia duten entitateena ere.

2. Prozedura horiek aztertu ondoren, arauen aldaketak bultzatuko dituzte, beharrezkoa den kasuan, erregelamendu proiektuak egin eta aurkeztuz edo foru legeen aurreproiektuen bidez.

11. artikulua. Erantzukizuneko aitorpena.

1. Erantzukizuneko aitorpena Administrazioaren kontrolpean dagoen enpresa edo lanbide jarduera bat abian jarri nahi duen pertsona batek edo legez hura ordezkatzeko duenak izenpetutako dokumentu bat da, zeinetan aitortzen duen, bere erantzukizunpean, kasuan kasuko enpresa edo lanbide jarduerari ekiteko betebeharrak guztiak, arau indardunetan ezarritako daudenak, betetzen dituela, horren egiaztagiriak badituela eta jarduerak dirauen bitartean beteko dituela hitz ematen duela.

2. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta hilabeteko epean, arautuko du zein kasutan ekin ahal izanen zaion enpresa- edo lanbide-jarduerari behar bezala betetako erantzukizuneko aitorpena aurkeztuz, bai eta ezartzen diren gainerako baldintzak ere betetz, haien artean deklarazio bat aurkeztea adieraziz ez duela alde erantzukizuneko aitorpenik. Eskatutako dokumentazio guztia aurkezteak berarekin ekarriko du, besterik gabe, jarduera lizentzia ematea, arau indardunekin bat datorrela egiaztatze baldintzapean betiere.

12. artikulua. Aurretiazko komunikazioa.

1. Aurretiazko komunikazioa dokumentu bat da, zeinaren bitartez enpresa edo lanbide jarduera bat abian jarri nahi duen pertsona batek, edo hura legez ordezkatzeko duenak, Administrazio Publiko eskudunari jakinarazten dizkion jarduera baten hasierari buruzko gertaerak edo elementuak, bertan adierazirik jarduera baldintzatu dezaketen alderdiak eta behar bezala betetzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak erantsita, kasuan kasuko araudian ezarritakoarekin bat.

2. Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez arautuko du zein jardueratan ekin ahal izanen zaion enpresa edo lanbide jarduerari artikuluko honek aipatzen duen aurretiazko komunikazioa, behar bezala izenpetua, aurkeztuz, bai eta bete beharreko beste baldintzak zein diren ere.

13. artikulua. Erantzukizuneko aitorpenaren eta aurretiazko komunikazioaren aurkezpena eta Administrazioaren kontrola.

Idatz-zati berria. Foru lege hau indarrean sartu eta hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak prest izan beharko ditu erantzukizuneko aitorpenaren eta alde erantzukizuneko komunikazioaren ereduak, hala euskarri digitalean, web atariaren bidez bete ahal izateko, nola paperean.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak interesa dutenen eskura jarri beharko ditu erantzukizuneko aitorpena eta aurretiazko komunikazioa egiteko ereduak, Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian (<http://www.navarra.es>); eredu horietan argi eta berariaz agertuko dira kasu bakoitzean bete beharreko baldintzak, bai eta horiek onartzen diren prozedura guztien zerrenda ere, etengabe eguneratua.

2. Erantzukizuneko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak ahalmena ematen dio dagokion administrazio publikoari edozein unetan egiaztatze, zuzenbidearen arabera onartuta dauden bitartekoak erabiliz, dokumentuak eta datuak egiazkoak ote diren eta baldintza guztiak betetzen ote diren. Horretarako, organo eskudunen ikuskaritza-eginkizuna bultzatuko du, adierazitako datuak egiaztatze, eta, beharrezkoa bada, organo horiei premiatzeko zehapen-ahalmena erabil dezaten.

3. Erantzukizuneko aitorpen edo aurretiazko komunikazio batek erantsia duen edo harekin batera aurkezten den funtsezko edozein datu, adierazpen edo dokumentu gezurrezkoa edo okerrekoa bada, egindakoa deuseztatuta geldituko da, eta ukitutako jarduera betetzea galarazita, horren berri izaten den une beretik; bidezko diren erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ere ez dira baztertzen.

4. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren ingurubarrak adierazteko Administrazio Publikoak emandako ebazpenak eragin dezake interesduna kasuan kasuko jardueran hasi aurretik zegoen egoera juridikora lehengoratu beharra, bai eta aldi zehatz baterako xede bera duen prozedura berri bat eskatzeko ezintasuna, hori guztia aplikatzekoak diren arauetan ezarritako dagoen moduan, betiere.

14. artikulua. Baldintzapeko lizentziak.

1. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek, enpresa edo lanbide jarduera bati eragiten dioten lizentziak emateko ekintzetan beretan, aipatu lizentziak ukatzea saihesteko klausulak gehitu ahalko dituzte, aplikatzekoak diren legeek ezarritako baldintzak eskatuz, azkartasun eta eraginkortasun administratiboa direla eta.

2. Baldintza horiek eskatu dezakete lizentzia behar duen proiektu baten alderdiak, aplikatzeko den araudiarekin bat ez datozenak, egokitu, osatu edo kentzea, betiere eskatutakoa legez ezarritakora egokitzea erraza denean, funtsezko baldintzak ez ukitzeagatik, eta egin nahi den jarduketa funtsean aldatzen ez bada. Baldintza horiek lizentzia emateko ekintza ezartzen den epean bete behar dira.

15. artikulua. Proiektuak eta ikus-onetsiak modu telematikoan aurkeztea.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean gehienez ere, sistema telematiko bat jarriko du lanbide elkargoei eta beste entitate batzuei, proiektuaren titularrak ados badaude, edo titularrei beraiei aukera emateko haien enpresa edo lanbide jardueren proiektu teknikoak eta haien ikus-onetsiak biltoki batean gordetzeko. Biltoki horretan gordetzeak salbuetsi egingen ditu titularrak Foru Komunitateko Administrazioan izapidetu beharreko prozedurei dagozkien administrazio espedienteetan aurkezteko betebeharretik, aski izanen baita proiektuari biltokian emandako kodearen aipamena egitea. Horretarako, behar diren hitzarmenak izenpetuko dira lanbide elkargoei. Nafarroako toki entitateak sistema honi atxiki ahalko zaizkio.

2. Proiektu horiek modu telematikoan aurkezteak erregistroan aurkeztean dituen ondorio administratibo berak izanen ditu.

16. artikulua. Dokumentuen ikus-onetsia eta egokitasun ikus-onetsia.

1. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek, berariazko arauak edo hartzaileak elkargoaren ikus-onetsia eskatzen ez duten kasuetan, enpresa edo lanbide jardueren proiektuetako prozeduretan esku hartzen duten lanbide elkargoei eskuordetu ahal izanen dizkiete, edo haiekin hitzartu, aurkeztutako dokumentazioa eta proiektuen zuzentasun teknikoa egiaztatzeko eginkizunak, dokumentuen ikus-onetsia eta egokitasuneko ikus-onetsia emanez, hurrenez hurren; elkargoaren beraren ikus-onetsia aurrekoetatik bereizirik emanen da, lanbide elkargoei buruzko araudian ezartzen diren eduki eta ondorioekin. Ikus-onetsi hori-

ek emateko kostua ez du proiektuaren sustatzaileak ordainduko.

2. Dokumentuen ikus-onetsia dagokion lanbide elkargoak emanen du, behin egiaztaturik aurkeztutako dokumentazioa osatuta dagoela eta kasuan kasuko araudiak eskatzen duenarekin formalki bat datorrela; fede egingen du aurkeztutako proiektuak aplikatzekoak diren legeek eskatzen duten dokumentazio guztia duela, eta ez du alde aurretik erabakiko haren edukia lege horiekin bat datorrela. Horretarako, ikus-onetsia emanen duten lanbide elkargoei zerrenda batzuk emanen zaizkie, hitzarmenetan sartutako prozeduretako bakoitza izapidetzean eskatuko diren dokumentu guztiak adierazita.

3. Egokitasuneko ikus-onetsia dagokion lanbide elkargoak emanen du, behin egiaztaturik lan profesionalaren dokumentazioa zuzena eta formalki osoa dela, proiektuaren edukiak zehaztapen teknikoari buruzko arauak betetzen dituela eta aplikatzekoak diren gainerako arau indardunekin bat datorrela bermatuta dagoela alegia.

4. Ikus-onetsi horiek emateak ez du proiektuaren egilea den profesionala dagokion erantzukizunetik salbuetsiko. Edozein kasutan ere, lanbide elkargoei eskatuko dute elkargoko kideek aurkeztutako proiektuetan berariaz zehaztea, esku hartzen duen profesionalaren sinaduraren ondoan, kide horrek bere erantzukizunpean onartzen duela proiektuaren edukia aplikatzekoa den araudiarekin bat datorrela.

5. Administrazio Publikoak osatutzat hartuko du dokumentuen ikus-onetsia atxikita aurkezten den proiektua, eta osatu eta baliozkotzat egokitasun ikus-onetsia daukana, baina horrek ukatu gabe bi kasuetan dagokion ikuskapen eta zehapen ahalmenaz baliatzea.

17. artikulua. Erregistro liburuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren baliabideak ezarriko ditu erregistro liburuak eraman behar dituzten enpresa eta pertsona erabiltzaileek zeregin hori formatu elektronikoa bete ahal izan dezaten. Era berean, horietan pixkanaka eginbideak kentzen joatea bultzatuko da.

Lehen xedapen gehigarria. Prozeduren berrikuspena.

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, 10. artikuluan aurreikusitako prozedurak berrikusiko dira.

Bigarren xedapen gehigarria. Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoaren funtzionamendua.

1. Foru lege honek indarra hartu eta bi hilabete epean, Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa jarriko da abian.

2. Funtzio publikoaren arloko eskumena duen kontseilariak emandako foru aginduaren bidez, Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoari beharrezkotzat jotzen diren langile publikoen eginkizunak atxikiko zaizkio, zein den ere haien atxiki-pen organikoa.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen aldaketa.

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen aldaketa hau egin da:

Bat. 49. artikulua 3. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“3. Ezin izanen da jarduera sailkatuetarako obra lizentziarik eman, harik eta behar den jarduera lizentzia eman arte. Aurrekoa gorabehera, ingurumenean eragin txikia duten zenbait jardueraren kasuan, eta erregelamenduz ezarriko diren modu eta baldintzetan, obra lizentzia eman ahal izanen da jarduera lizentzia izapidetzen ari den bitartean. Kasu horietan, obren exekuzioa sustatzailearen ez beste inoren erantzukizuneko izanen da, horrek

jarduera lizentzia eman edo ukatzea baldintzatu gabe, ez eta ingurumenaren arloko erakundeak ezartzen dituen baldintzetara egokitzea ere, beharrezkoa eta nahitaezkoa baita.”

Bi. 52. artikulua 3. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“3. Arestiko idatz-zatiak hizpide duen epean ebazpenik eta jakinarazpenik ez egoteak proiektuak Ingurumen eraginaren ebaluazioa ez duela behar esan nahiko du.”

Hiru. 58. artikulua 4. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“4. Irekitzeko baimena lortu aurretik, energia elektrikoaren hartune edo hedapen, erregai likido zein gasezkoen erabilpen, edateko uraren horniketa baimenak eta jardueran aritzeko nahitaezkoak diren gaineko baimenak eskuratu ahal izanen dira, erregelamenduz kontrakoa zehazten den kasuetan izan ezik. Baimen horiek irekitzeko lizentzia lortzearen menpe egonen dira, hura ukatuz gero beste baimenak ere besterik gabe ukatuko baitira, eta hornidura berehalakoan eten beharra ekarriko du.”

Azken xedapenetan lehena bis berria. Foru lege hau garatzeko gaitasuna.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau betearazi eta garatzeko behar diren erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena.

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak 2009ko azaroaren 10ean eta 11n eginiko bileretan onetsia

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioko 49. artikulua araber, "botere publikoek aurreikuspen, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratze politika eginen dute gutxitu fisiko, sensorial eta psikikoei dagokienez; beharrezkoa duten laguntza espezializatua emanen diete eta bereziki babestuko dituzte titulu honek herritarrei ematen dizkien eskubideak gozatu ahal izan ditzaten"

Lan egiteko moduan dagoen pertsona orok izan behar du aukera enplegu egoki eta kalitatezko bat lortzeko, berdintasun osoz eta inolako bazterketarik gabe. Ez bakarrik bere bizibidea ziurtatzeko, bai eta enplegua gizarte-integratiorako faktore oso garrantzitsua delako ere.

Ezgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden pertsonak enplegua lortu

ahal izateko zailtasun bereziak dituen talde bat osatzen dute. Egoera horrek Administrazioaren eta, oro har, gizartearen inplikazioa eskatzen du. Botere publikoek beharrezkoak diren neurri eta tresnak sortu eta finantzatzeko betebeharra dute, bermatzeko talde horrek berdintasun baldintzetan lan egiteko duen eskubidea balia dezan.

Ezinduen Gizarteratzeari buruzko 41.1 artikuluan ondokoa xedatzen da: "ezgaitasunen bat duten pertsonak, ezgaitasunaren izaera edo ondorioak direla-eta, ezin badute ohiko baldintzetan lan egin, aldi baterako edo behin betikoz, enplegu zentro berezietan enplegatuko dira..."

Lege beraren 42.1 artikuluan enplegu zentro berezien definizioa ematen da: "Helburu nagusia lan produktiboa egitea da, merkatuko eragiketetan erregulariki parte hartuz, azken xedea delarik bere langileei diruz ordainduriko lanpostu bat ematea bere langile ezinduei berauek behar dituzten doitzetaz, direla pertsonalak, direla sozialak, ematea; halaber, ahalik eta ezindu gehien lan mundu normalean txertatzeko balioko du."

Halaber, apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuan eta dekretu hau aldatu zuen uztailaren 2ko 60/2009 Foru Dekretuan jasotzen den bezala, gizarteratzeko eta laneratzeko zentroen beharrezko bat da "bazterketa egoeratik datozen pertsonen prozesu integratuak eta banakakoak eskaintzea, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidearen parte gisa. Prozesu horiek lan-jarduera ordaindua, lanbide-prestakuntza egokia eta, behar denean, gizarte laguntza edo esku-hartzea izanen dira, gizarteratu eta laneratu ahal izan daitezen."

Gaur egun, enplegu zentro bereziak enplegu babestua sortzeko tresna oso garrantzitsua dira; izan ere, ezgaitasunen bat duten 1.300 pertsonak egiten dute lan Nafarroan dauden 16 enplegu zentro berezietan. Halaber, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden 130 pertso-

nak egiten dute lan gizarteratzeko eta laneratzeko 11 zentrotan.

Hala ere, gaur egungo egoera ekonomikoaren ondorioz, ezgaitasunen bat duten eta gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonen enplegua suntsitzen ari da Nafarroan, eta, pertsona horiek, langabeziko laguntzak eska baditzakete ere, etxean geratuko dira, zalan-tzan jarriz urteetan eginiko lan soziala. Horretaz gain, aipatu behar da, baita ere, buruko nahaste larriagatik ezgaitasunak dituzten pertsonen egoera; izan ere, talde hori bereziki ahula da beren errehabilitazio- eta integrazio-prozesuan izan daitekeen edozein aldaketaren aurrean eta, ziurrenik, desoreka egoerak areagotu eginen dira talde horren barruan.

Foru Administrazioak arindu dezake neurri batean talde horiek jasaten ari diren enplegu-suntsiketa, zentro horiek hobetuz eta lagunduz, gaur egun indarrean dauden dirulaguntzen bidez, eta, halaber, beharrezkoak diren legegintza-neurriak prestatuz, enpresa horietako enplegua mantendu eta hobetzeko.

Horretarako, Nafarroako Kontratu Publikoek buruzko Foru Legearen 9. artikulua ezartzen du administrazio publikoek kontratu publikoen 100eko 20 arte erreserbatu ahalko dutela izaera sozialeko entitateentzat. Hala ere, artikulua hori ez da inoiz ere bete, hein batean, hori ez delako nahitaezkoa; izan ere, xedapen horren aplikazioa foru lege hori aplikatzen zaien entitate publiko desberdinen borondatearen arabera da.

9. artikulua idazketa berri batek, entitate publikoek hura betetzeko betebeharra izan dezaten, aukera emanen luke Nafarroako enplegu zen-

tro berezien eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentrozen egonkortasuna eta enplegua ziurtatzeko.

Foru lege honek ahalbidetzen du esleitutako kontratuen erreserbaren errealitatera gehiago hurbiltzen den ehuneko bat ezartzea; hala, esleitutako kontratuen zenbatekoaren % 6aren erreserba, gutxienez, finkatzen du.

Artikulu bakarra.

Nafarroako Kontratu Publikoek buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua idazketa berria ezartzen da. Hona hemen testua:

“9. artikulua. Izaera sozialeko entitateentzat kontratuak erreserbatzea.

1. Foru legearen menpeko entitateek kontratuen adjudikaziorako prozeduretan parte hartzeko aukera erreserbatuko diete irabazi asmorik gabeko enplegu zentro berezietan eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentrotan, edo kontratuen exekuzioa zenbait enpresarentzat gordeko dute enplegu babestuko programen esparruan, ukitutako langile gehienek ezgaitasunen bat izan edo gizartean bazterturik dauden pertsonak badira eta, beren ezgaitasun motagatik edo larritasunagatik edota gabeziengatik, ohiko lanbide jarduerak egiteko modurik ez dutenean.

2. Erreserbatzen diren kontratuen zenbatekoa, gutxienez, aurreko aurrekontu-ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoaren 100eko 6 izanen da.

3. Erreserbatzen diren kontratuen lizitazioari buruzko iragarkietan aipatu egin beharko da honako xedapen hau.”

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua- ren b) letra aldatzen duena.

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua-
ren b) letra aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpe-
na Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Errege-
lamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Pro-
posamen hori 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarro-
ako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu
zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak 2009ko
azaroaren 10ean eta 11n egintza bileretan onetsia

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua- ren b) letra aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Beharrezkotzat jotzen dugu sozietate publikoa-
ren definizioa formalki egokitzea Europar Batasu-
neko zuzenbidean eta jurisprudenzian halakoak
erregulatzen dituzten arauetara eta ematen zaien
tratamendura, Europako Parlamentuaren, Kontsei-
luaren eta Batzordearen zuzentarauetan ezarri
den bezala. Hori dela eta, gure arauak xede hori
dela-eta aldatu behar ditugu.

Sozietate publikoa zer den zehazteko aldaketa
horrek, definizioa Europar Batasuneko zuzenbide-
aren arabera egokitzea bilatzen duenak, berarekin
dakar Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren
4ko 14/2007 Foru Legean jasotako kontzeptua
zabaltzea. Foru lege hau onetsi ondoren, honakoa
joko da enpresa publikotzat: jabetza, finantza par-
taidetza edo enpresaren arauak direla-eta botere
publikoek zuzenean edo zeharka nagusitasunezko
eragina gauzatu ahal duteneko edozein enpresa.

Artikulu bakarra. Nafarroako Ondareari
buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen
aldaketa.

103. artikuluko b) letra aldatu eta testu hau jar-
tzea:

"b) Sozietate publikoak. Nafarroako Foru
Komunitateko eta haren menpeko erakunde publi-
koetako sozietate publikoak dira Foru Komunitate-
ko Administrazioaren edo/eta haren menpeko era-
kunde autonomoen zuzeneko nahiz zeharkako
partaidetza duten sozietateak, partaidetza horrek
sozietatearen kapitalaren gehiengo osoa osatzen
badu. Orobat dira sozietate publikoak Nafarroako
Foru Komunitateko Administrazioak edo/eta haren
menpeko erakunde publikoek administrazio,
zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen
erdia baino gehiago zuzenean nahiz zeharka izen-
datzeko gaitasuna dutenak; edo sozietateak jaulki-
tako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa
dutenak"

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako
Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean
hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2009ko ekainaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lege proposamenaren izenburua kentzeko zuzenketa.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PALAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PALAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra kentzeko zuzenketa.

4. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PALAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lege proposameneko xedapenetako testua aldatzeko zuzenketa

5. artikulurako honako testu hau proposatzen da. Artikulua honela idatzita geldituko da:

"5. artikulua. Nafarroako hizkuntza bereki eta ofizial deklaritzen dira gaztelania eta euskara, halako moduz non Nafarroako herritar orok aukera izanen baitu hizkuntza biak erabiltzeko Foru Komunitateko lurralde osoan, bai irakaskuntzan, bai Administrazioarekiko harremanetan, bai eta hedabideei dagokienez ere".

Zioak: Testu-ordezkapena proposatzen da ez dagoelako kontraesanean Konstituzioko 3. artikuluan edo Foru Hobetzearen 9. artikuluan ezarritakoarekin eta, horrez gain, kontzeptu moderno eta etorkizun handikoa delako, parekagarria, era berean, bi hizkuntza edukitzearen ikuspegitik Nafarroarekin alderatzeko modukoak diren beste lurralde batzuetako hizkuntza-arauketarekin, hala nola Arabaren edo Valentziako eskualde batzuen kasuarekin.

Funtzionalki, hizkuntza politikak, bai hiriburutasunaren ikuspegitik bai zerbitzu-ematearen ikuspegitik egitura logikoa bermatzeko, ikuspegi bateratua eta bereizketarik gabekoa beharrezkoa du Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan.

5. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Lege proposamena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

"5. artikulua.

1. Foru Lege honen ondorioetarako, Nafarroak ondoko eremuak ditu:

a) Eremu euskalduna, ondoko udalerriek osatua: Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arakil, Arantza, Arano, Arbizu, Areso, Aria, Aribere, Arruazu, Auritz/Burguete, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erro, Esteribar, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Igantzi, Imotz, Irañeta, Iriberrri, Irurtzun, Ituren, Iturmendi, Lakuntza, Lantz, Larraun, Lekunberri, Leitza, Lesaka, Luzaide, Oitz, Olazti, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Sunbilla, Uharte-Arakil, U1tzama, Urdazubi, Urdiain, Urrotz, Zubieta, Ziorria eta Zugarramurdi

b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierrri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gesa-

latz, Goñi, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Noain-Elortzibar, Odieta, Olaibar, Olo, Oltza, Orkoien, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartze, Txulapain, Uhartte, Urzainki, Uztarroze, Zabaltza, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia”.

Zioak: Legeak hogeita hiru urte darama indarrean, eta, hori dela eta, gaurkotu beharra dago, espresuki jasotze aldera zenbait udalerrri; izan ere, gaur egun hizkuntza eremu jakin baten barruan daude, baina ez zeuden legearen testuan adierazita, kasuan kasuko zendeatik bereizteko prozesuaren ondotik. Beraz, asmoa da Euskarari buruzko Foru Legea egungo administrazio-errealitatera egokitzea.

6. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PALAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa, ordezko modura aurkeztua, aurreko zuzenketa onetsia ez izatearen kasurako.

“b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua:

Abartzua, Adios, Agoitz, Ameskoak, Antsoain, Añorbe, Aranguren, Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Barasoain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Biurun-Olkoz, Burgi, Burlata, Deierrri, Egues, Elo, Elortzibar, Eneritz, Erriberri, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gariñoain, Gesalatz, Goñi, Gorza, Ibargoiti, Irunberri, Iruña, Itza, Itzagaondoa, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Kaseda, Legarda, Leotz, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Lorka, Mañeru, Muruzabal, Noain-Elortzibar, Obanos, Odieta, Oibar, Olaibar, Olo, Oloritz, Oltza, Orisoain, Orkoien, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Puiiu, Sartze, Tafalla, Tiebas-Muru Arterreteta, Tirapu, Txulapain, Uharte, Ukar, Urzainki, Uterga, Uztarroze, Villatuerta, Zabaltza, Zangoza, Zirauki, Ziritza, Zizur Nagusia eta Zizur Txikia”.

Zioak: Hala datu soziolinguistikoek nola gizarte-eskariak ekartzen dute zenbait udalerrri Nafarroako eremu mistoan sartzea, baldin eta, Iruñerrian daudelako edo bakoitzak daukan gizarte-dinamika bereziaren ondorioz, eremu horretan egoteak ekartzen dituen zerbitzuen eta eskubideen premia izan badezakete.

Aurreko horretaz guztiaz gainera, kontuan hartu behar da, esate baterako, Iruñerriko Zerbitzuen Mankomunitatea eta beste mankomunitate batzuk, hala nola Lizarrakoa, Tafallakoa eta abar, beren funtzionamenduan jadanik elebitasunareki-

ko errespetua erakutsi duten entitate publikoak direla, eta haien jarduketa-eremu geografikoak oraindik ez daudela eremu mistoaren barruan sartuta.

Halaber, aintzat hartu beharko da zenbait udalerririk berariaz adierazi dutela eremu mistoan sartzea eskatzeko borondatea.

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Proposamenaren testuaren orde honako hau jartzea proposatzen da:

“b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzua, Agoitz, Antsoain, Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierrri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Garde, Gares, Gesalatz, Goñi, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Odieta, Olaibar, Olo, Oltza, Orkoien, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartze, Txulapain, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Zabaltza, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia”.

Eremu misto hori automatikoki hedatu ahalko da Arangurengo, Belaskoango, Galarko eta Noain-Elortzibarko udaletara, baldin eta toki korporazio horietako bakoitzeko Osoko Bilkurak gehiago oso hartzen badu erabakia. Erabakiak eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Zioak: Helburua da eremu mistora egokitzea eta sartzea eremu horretan sartuta ez dauden Iruñerriko udalak, azterlan soziolinguistikoaren arabera eremu horretan sartzearen alde daudenak.

8. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Lege proposamena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

5. artikulua.

1. Foru Lege honen ondorioetarako, Nafarroak ondoko eremuak ditu:

b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gesalatz, Goñi, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Noain-Elortzibar, Odieta, Olaibar, Olo, Oltza, Orkoién, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartzé, Txulapain, Uharté, Urzainki, Uztarroze, Zabalza, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia”

Zioak: Iruñerriko metropoli-area, Iruñeko aldirietako udalek osatua, errealitate soziogeografiko bat da, horniduren eta zerbitzuen tratamendu homogeen bat ezartzen ari dena. Legeek ezin diote bizkar eman errealitateari; proposamen honen xedea da eremu mistoa Iruñerriko metropoli-area osora egokitzea.

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA.

Gehitzeko zuzenketa. 5.b) artikuluko herrien zerrendan Beriaingo herria sartu nahi dugu.

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PALAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapena kentzeko zuzenketa.

11. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Lege proposamenari xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Bigarren xedapen iragankorra:

Ondoko baldintza bete beharko da Aranguren-
go, Beriaingo, Galarko eta Noain-Elortzibarko udalak 18/1986 Foru Legeko 5.1.b) artikuluan behin betikoz sartzeko: kasuan kasuko udalaren Osoko Bilkurak gehiengo osoz hartzea erabakia eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eremu mistoan sartzeko borondatea adierazten duen erabaki hori.

Zioak: Prozesu honen bidez lortu nahi da udal horiek bere zerbitzuak egokitu ahal izatea, eremu mistoan behin betikoz sartu aurretik.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezen agindu dut. Proposamen hori 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

58. artikulua kentzeko zuzenketa. Artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Destinoko herrian bizitzeko betebeharra kenduta, ez du zentzurik artikulua honetan ezarritakoari eusteak, legezko kontraesan nabarmena litzatekeelako.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

58. artikulua aldatzeko zuzenketa:

Destinoko herria ez den beste batean bizitzeak ez du funtzionarioa salbuesten lan lekura garaiz iristeaz eta lanaldia nahiz karguaren berezko funtzioak zorrotz betetzeaz, eta ez du ekarriko ordainik ematea lan lekurako joan-etorriengatik.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

63.g) artikulua kentzeko zuzenketa. 63. artikuluko g) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: Destinoko herrian bizitzeko betebeharra kenduta, ezin da arau-hauste larria izan betebehara hori ez betetzea.

Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda